

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Distinción

Moda-argazkilaritzaren mende bat

Jardunaldia

Distinción

Moda-argazkilaritzaren mende bat

Distinción. Moda-argazkilaritzako mende bat erakusketak Bartzelonako Museu del Dissenyko moda-argazkilaritzako bilduma du oinarri; bilduma horrek 1903. eta 2013. urteen bitarteko 30 egile baino gehiagoren neurri askotako argazkiak jasotzen ditu.

Erakusketaren helburua da modako argazkilaritzaren zentzua eta funtzioa ulertaraztea; modaren zabalkundearen zerbitzuan jarritako tresna garrantzitsua izan da, batez ere xx. mendearen bigarren erditik aurrera; bai eta mende batean zehar izan duen funtzioa azaltzea ere, diskurtso kronologiko eta tematiko baten bidez aldi berean. Erakusketan, argazkilaritzako izen handiak ageri dira, hala nola Ramon Batlles, Oriol Maspons, Manel Esclusa, María Espeus, José Manuel Ferrater, Antoni Bernad, Manuel Outumuro, Txema Yeste, Eugenio Recuenco, Sergi Jasanada eta Javier Vallhonrat, besteak beste.

Cristóbal Balenciaga Museoak, Kutxa Kultur Modarekin elkarlanean, ikusizko komunikazioak modaren munduan duen garrantzian eta erakusketan txertatutako ondorioetan sakontzeko asmoa duen egun hau aurkeztu du; ondorio horiek erakusketa egitasmoan inplikaturako zenbait espezialistaren ikerketaren fruitu dira.

Distinción

Moda-argazkilaritzaren mende bat

11:00 AURKEZPENA
Miren Vives Almandoz, Cristóbal Balenciaga Museoaren zuzendaria.

11:10 HITZALDIA
El sistema de la moda y la fotografía

SILVIA VENTOSA. Bartzelonako Museu del Dissenyko Ehungintza eta Moda Saileko arduraduna eta erakusketaren komisario laguntzailea.

Jantzeko moduetan etenik gabeko aldaketa bizkorrak eragiten dituen fenomeno soziala da moda, edertasun kanon desberdinen arabera aro eta leku bakoitzean. Modaren sistemak eskala handiko kontsumoa akuilatzen dituzten tresnak behar ditu, eta argazkilaritza da modako berritasunak transmititzeko komunikazio tresnarik indartsuena. Argazki horiek bizitzeko joerak eta estiloak bultzatzen dituzte. Guztien artean irudirik sortzaileenak direnez, eta jende gehiagorengana iristen direnak, imitatu egiten dira, duten indar bisualarengatik eta eraginkortasun komertzial, sozial eta kulturala duela frogatu duen atmosfera bat sortzen dutelako. Modako aldizkariak editorialak (narrazio txikiak) eta publizitatea konbinatzen ditu, ideiak, zirriborroak, ehunak eta jantziak testu eta irudi bihurtzeko.

Hitzaldi honen bidez, argazkilaritzaren eta modaren sistema aztertuko da, bai eta Bartzelonako Museu del Dissenyko moda-argazkilaritzako bilduma ere, 2010ean abian jarria, ikertzeko dagoen lurralde bat, zeinean ikerketaren objektua ez den azken produktua, jantzia, edo haren diseinuaren prozesua, haren zabalkunderako bitartekoa baizik, argazkilaritza.

12:00

HITZALDIA

Fotografía y moda: de 1903 a 2013

JUAN NARANJO. *Distinción. Moda-argazkilaritzaren mende bat* erakusketaren komisarioa

Impresio-tekniketan izandako aurrerapenen eta irakurleen interes berrien ondorioz, argazkilaritzak esponentzialki irabazi zuen agerikotasuna bitarteko inprimatuan. Argazkilaritza aldizkari ilustratuetan zabaldu zenean, 1900. urtetik aurrera gutxi gorabehera, horrek argazkilaritzaren eta modaren arteko lotura indartu zuen, eta argazkilaritza modaren sustapenerako espazio diskurtsibo garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Hitzaldi honetan, moda-argazkilaritzak eta xx. mendean artearen zein pentsamenduaren munduan izandako korrante berritzaileenek izan zituzten harremanak aztertuko dira.

12:50

ATSEDENALDIA

13:10

HITZALDIA

El fotógrafo, generador de valor artístico a través de la imagen

DANIEL RIERA. Argazkilaria

Bere ibilbidearen bidez, eta lehen eskutik, azken 20 urteotan moda-argazkilaritzan eta haren sistema osoan izandako errotiko aldaketak aztertuko ditu Rierak. Aldizkari independenteetatik goiburu handietara eta egile-diseinatzaileengandik marka globaletara egindako bere urratsetan oinarrituta, lan ikoniko batzuk eta nazioarteko goiburu batzuk errepatatuko ditu; horiekin kolaboratzen du eta horietan bere ikuspuntuari fidel eutsi ahal izan dio, kolaboratzaile nagusiekin batera, estilistengandik arte zuzendarienganaino, modako irudi batean azken emaitza osatzen duten talde guztiak barne.

14:00

BISITA LIBREA ERAKUSKETARA



SILVIA VENTOSA

Bartzelonako Unibertsitatean Filosofian lizentziatua eta Antropologia Urbanoan doktore Tarragonako Virgili Unibertsitatean, Bartzelonako Museo del Dissenyo Ehungintza eta Modako arduraduna da. Modari, herri jantziei, ehungintzako arte garaikideari eta moda-argazkilaritzari buruzko ikertzailea da, hainbat erakusketa zuzendu ditu komisario gisa. Haren azken argitalpenen artean *Els vestits populars a Catalunya* (Brau Edicions, 2015) eta *El cuerpo vestido, siluetas y moda 1550-2015* (Museu del Disseny de Barcelona, (2014) daude, besteak beste.



JUAN NARANJO

Komisario independentea, haren ikerketa-lerroek argazkilaritzaren erabilerak eta funtzioak izan dituzte ardatz; argazkilaritza lantzearekin batera, Bartzelonako Juan Naranjo Galería de Arte & Documentos musearen zuzendaritzaz arduratzen da. Bartzelonako Museu Nacional d'Art de Catalunya Argazkilaritza saileko aholkularitza batzordeko kide izan da, eta Bartzelonako Gustavo Gili argitaletxeko Fotografia saileko aholkularia da.



DANIEL RIERA

Arte Ederretan lizentziatua Bartzelonako Unibertsitatean, zinema ikasketak egin zituen Bartzelonako Escola de Mitjans Audiovisualsein (EMAV). Moda-argazkilaritzan eta erretratuan espezializatua, hainbat komunikabidetan argitaratu ditu lanak goeko hamarkadaren erdialdetik aurrera, *Fantastic Man*, *The Gentlewoman*, *Butt*, *Vogue Hommes Int.*, *Vogue* (Espainia, Ukraina, Errusia, Mexiko), *Modern Weekly*, *Harper's Bazaar USA*, *El País Semanal*, *GQ*, eta gisako beste askotan. Hermès, Dior, Air France, COS, eta Lacoste markentzat egin du lan, besteak beste. Beste aitortza batzuen artean, *Best Fashion Editorial of the Year* saria jaso du Swipecast Awards 2017 sarietan. Haren lana bakarkako erakusketetan zein kolektiboetan erakutsi izan da nazioarteko mailan.

INFORMAZIOA

DATA

Abenduak 1

ORDUTEGIA

11:00 - 15:00

LEKUA

Cristóbal Balenciaga Museoa, Getaria

SARRERA DOAN

LEKUAK MUGATUTA

IZENA EMATEA BEHARREZKOA

HARREMANETARAKO

T 943 008 840

info@crislobalbalenciagamuseoa.com

Cristóbal Balenciaga Museoa Kutxa Kultur Modarekin
lankidetzan antolatutako jarduera




kutxa kultur
moda
kutxa FUNDAZIOA

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71 km
Bilbao — 81 km
Donostia/ San Sebastián — 25 km
Iruña-Pamplona — 97 km
Vitoria-Gasteiz — 83 km

GPS
43° 18'6.92" N
2° 12' 18.77" W

